

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresaren **helburua** da aniztasun funtzionala duten hurrei eta haien familiei arreta eta **laguntza eskaintzea**, beren gaitasunak garatzen eta ongizatea sustatzen lagunduz. Horretarako, gure jarduera nagusiak arlo hauei dagozkie:

Indibidualizatutako Terapia Saioak (Superbotereen Kluba):



Haur bakoitzaren **behar espezifikoak** aztertuta, banakako **terapia saioak** eskainiko ditugu, hala nola **psikologia**, **logopedia** eta **fisioterapia**. Saio hauek haur bakoitzaren **erronka** eta **gaitasunak** kontuan hartuta egokituko dira, haien garapen emozionala, kognitiboa eta fisikoa sustatzeko. Gure terapeuten taldeak profesionaltasunez lan egingo du, haur bakoitzaren beharretara egokitutako tratamenduak eskaintzeko. Jarduera guztiak gure Elorrioko sedean eginaraziko genituzke terapia indibiduala bakarka psikologoaren laguntzaz egingo da, aparteko geletan.

Taldeko Terapia eta Tailerrak (Superbotereen Kluba):

Talde dinamikak eta tailerrak ere eskainiko ditugu, haurren **sozializazioa** eta **elkarrekintza sustatzeko**. Jarduera hauetan, haurrek besteekin elkarreragin eta euren emozioak eta gaitasunak lantzeko aukera izango dute, garapen motorra eta kognitiboa bultzatuz. Tailer hauen bidez, haurrek taldean **lan** egiteko **trebetasunak** eta sormen-gaitasuna garatuko dituzte, baita euren emozioak kudeatzeko eta besteen sentimenduak ulertzeko ere. Langile espezializatuen bitartez egongo ditugu jarduerak. Hauek gure Elorrioko sedeko zonalde ludikoan egingo ditugu.

Gurasoen Aholkularitza:

Gurasoei eta familiako kideei orientazioa eta laguntza eskaintzea ere funtsezko zerbitzua izango da gure proiektuan. Banakako edo **taldeko aholkularitza** saioetan, familiak lagunduko ditugu beraien haurren garapenari eta beharrianetara egokitutako ekintzak eta hurbilpenak lantzen. Saio hauetan, gurasoek beraien seme-alaben beharrak hobeto ulertzeko eta haien hezkuntza prozesuan laguntza egokia eskaintzeko aholkuak jasoko dituzte. Saio hauek **Elorrioko sedean** emango dira baita ere, gurasoentzako aholkularitza gure sedeko bulego pribatuetan egingo dira, gurasoen aholkularitza beraien umearekin lanean dagoen berdina izango da eta bere ikuspegia eta aholkuak emango dizkie gurasoei.



Jarduera Inklusiboak eta Kanpoko Ekintzak:



Haurrek eta familiek parte hartu ahal izango dute antolatzen ditugun jarduera **inklusiboetan** eta kanpoko ekintzetan, hala nola irteeretan, aisialdiko tailerretan eta bestelako ekitaldietan. Adibidez, Durangoko azkoan txoko berezia eskaintzea, guk emanten ditugun zerbitzuei buruz

informazioa emanez eta gairari buruzko idazleekin ditugun ekitaldi interesgarriak emanez. Ekintza hauek, beti ere **inklusibitatearen** eta **aniztasunaren** printzipioak jarraituz, haurren artean harreman sozialak sustatzea eta ingurumenarekin konektatzeko aukera eskaintzea izango dute helburu. Jarduera horiek familia guztientzat eskuragarri egongo dira, inklusio soziala bermatuz.

Garapen Ebaluazio Integrala:

Zerbitzu hau, haur bakoitzaren **gaitasun** eta **beharrak** modu naturalean **ebaluatzea** du helburu. Ebaluazio hau **pertsonalizatua** izango da, eta profesionalek prozesu sakon bat egingo dute, haur bakoitzaren garapena modu zehatzean aztertuz. Ebaluazioaren emaitzen arabera, haur bakoitzari egokitutako estrategia eta tratamenduak garatuko dira, bere garapenari laguntzeko oinarri sendoa eskaintzeko.

Hautzaroko Eskola-Laguntza Zerbitzua:

Aniztasun funtzionala duten haurren eskolako laguntza espezifikoa ere eskainiko dugu. Zerbitzu honek hurrei eskolan egin beharreko lanetan laguntzea du helburu, haien **ikasketa prozesua** errazteko. Saioak ordubetekoak izango dira eta beharrezkoa den moduan egokituko dira, haurren ikaskuntza erritmoa eta beharrei jarraiki. Horrela, hurrek eskolan arrakasta izateko behar duten laguntza jasoko dute.



Zerbitzu hauek guztiak, haurren eta familien **ongizatea** sustatzen duten helburuarekin, **pertsonalizatua** eta eraginkorrak izango dira, beti ere aniztasun funtzionalaren beharrak kontuan hartuta.